

Artea eta sexualitatea eskutik

'Trans Sexual Express' erakusketak 20 artistaren lana bilduko du Bilbao Arte-n

Montse Arregi / Bilbo

Astlehenean irekiko dituzte ateak *Trans Sexual Express* erakusketak Bilbao Arte zentroan. Gonbidatuek ostiralean inauguratuko duten erakustaldian 20 artistaren lanak izango dira, sexualitatea ardatz dutenak. Txomin Badiola, Dora Salazar edo Ana Laura Alaez bezalako artista ezagunen lanekin batera hasi berri diren beste batzuek izango dira ikusgai otsailaren 6a arte. Komisario lanetan Xabier Arakistain aritu da.

HILAREN 11tik otsailaren 6a bitartean egongo da zabalik *Trans Sexual Express* erakusketa Bilboko Bilbao Arte zentroan. Bertan 20 euskal artista gazteren azken produkzioak izango dira ikusgai, eta guztien arteko lotura sexualitatearekiko kezka izango da. Xabier Arakistain komisarioak artista ezagunak eta hasi berriak elkartu nahi izan ditu erakustaldi horretan, eta lehenengoan arloan, besteak beste, Txomin Badiola, Dora Salazar edo Ana Laura Alaezen lanak topa daitezke.

Argazkiak, eskulturak, margoak, bideoak, instalazioak edota marrazkiak aurkituko ditu Bilbao Arten (Urazurrutia, 32) bisitariak. Horien egile diren artistak belaunaldi berekoak dira, 28 eta 40 urte bitartean dituzte guztiek. «Adinagatik Badiola apurtxo bat nabarmentzen bada ere, arriskatzan duen artista da, oso benetakoa», azpimarratu digu komisarioak.

Erakusketa 70eko hamarkadako arte eta pentsamendu erradikalaren eragina



TXOMIN BADIOLA

Txomin Badiolaren *Nobody's city* izeneko argazkia ere izango da erakusketan.

■ ■ ■ 70eko hamarkadako arte eta pentsamendu erradikalaren eragina duen 90eko ekintza da erakusketa.

■ ■ ■ Erakusketako arduraduna, Xabier Arakistain, emakume eta gizon artista kopuru antzerakoa biltzen saiatu da.

duen 90eko ekintza dela deritzo Arakistainek. Gainera, gazteen arteak Euskal Herrian hartu duen norabidearen erakusgarri ere bada uste du. Artisten diskurtsoari interesgarria deritzo antolatzaileak, «sexu, genero eta sexualitate ezberdintasunak desdramatizatzen dituelako».

Erakustaldiaren arduradunaren arabera, duela urte bi inguru sortu zen erakusketa egiteko egitasmoa. *Trabestismoa zine komertzialean* gaia hartu zuen berak dokto-

re tesia egiteko, eta lana garatzeko metodo moduan teoria feminista erabili.

Sexua, gai erabilia euskal artisten artean

Horrela, sexua, generoa eta sexualitatearen inguruko gaiak aztertu zituen bereziki Arakistainek. Euskal arte garaikidean gai horiek sistematikoki landuak zirela konturatu zen, eta lan egitera kanpora atera behar izan zuten artistak etxean gelditutakoekin biltzeko ideia mami-

tzen hasi zen. Artisten aldetik oso harrera ona izan zuen Arakistainen ideiak. «Ni neu ere harrিতa gelditu nintzen, artearen inguruan egiten dudana lehen lana dela kontutuan hartuta. Guztien aldetik gogo bizia, laguntasuna eta erraztasun guztiak jaso ditut erantzun gisa».

Bilbao Arte zentroaren aldetik ere erantzun ona jaso du komisarioak. «Gunea ireki aurretik beste toki batzuetan aurkeztu nuen egitasmoa, eta guztiek jarri zidaten oztoporen bat edo beste». Javier Riaño Bilbao Arteko zuzendariak gogo onez hartu zuen proiektua, eta aurrera eramateko bidean lagundu zuen.

Arakistain saiatu da emakume eta gizon artista kopuru antzerakoa biltzen erakusketarako, «eta ez dugu horretarako inolako zailtasunik aurkitu, ez kalitateari begira, ez eta artista kantitateari begira ere».

Erausketaren osagarri, hitzaldiak

TRANS SEXUAL EXPRESS erakusketan gaur egungo artisten lana ikusgai bada ere, «azken joera artistikoa gai berberen inguruko ekarpen teorikoekin lotzeko» helburua lortzeko hitzaldi sorta antolatu da Bilbao Arte zentroan. «Filosofia, Artearen Antropologia, errepresentazioaren eta narratibaren analisia eta Kultur Ikasketak generoarekin harremanetan jarriko dituzte hitzaldiok», azaldu du Xabier Arakistain komisarioak.

Hilaren 12an *Gay eta lesbiana azterketak espainiar estatuan eta mundu anglosaxoian* gaia izango du mintzagai Paul Julian Smith Cambridgeko katedradunak. Biharamunean *Gorputzaren labirintoak* izenburua duen hitzaldia eskainiko du Lourdes Mendez antropologoak. Azken hitzaldia Amelia Valcarcel filosofoak eskainiko du, eta *Modernitatearen ontologia politikoa* deritzon mintzaldia eman- go du.

Hitzaldiok arratsaldeko 20:00etan hasiko dira Urazurrutia kaleko 32an dagoen Bilbao Arte zentroan.

Argitalpenak ere bai

Era berean, «arte eta tes- tuinguru sozial eta intelektuala lotu nahian», erakusketaren aldamenen erakusmahai bat egongo da, hainbat argitalpenen erakusgarri. Horrela, gaia jorratu izan duten kolektibo ezberdinek argitaratu ohi dituzten aldizkariak eta bestelako argitalpenak eskuragai izango ditu bisitariak Bilbao Arten bertan.